

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Enpleguaren egoera

**Langabezia, behin-behinekotasuna
eta Europako datuak**

**Langabezia, eta langabeziaren
estaldura**

Kontratazioa

Gizarte Segurantzarako afiliazioa

BPGaren bilakaera

**Funtsezko gaia: enpresen etekinak
eta aberastasunaren banaketa**

Hego Euskal Herriko lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA			
JARDUERA TASA (%)	76,2	2014.eko IV. Hiruhilabetea	75,2
JARDUERA TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	72,5	2014.eko IV. Hiruhilabetea	72,1
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.128.500	2015.eko I Hiruhilabetea	1.111.900
SOLDATAKO BIZTANLERIA	943.400	2015.eko I Hiruhilabetea	923.300
ALDI BATERAKO TASA (%)	20	2015.eko I Hiruhilabetea	20,7
ALDI BATERAKO TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	14,1	2014.eko IV. Hiruhilabetea	13,8
BIZTANLERIA LANGABETUA	219.100	2015.eko I Hiruhilabetea	232.700
LANGABEZI TASA (%)	16,3	2015.eko I Hiruhilabetea	17,3
LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,7	2015.eko I Hiruhilabetea	10,5
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	39,4	2015.eko I Hiruhilabetea	50,15
GAZTEEN LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	20,9	2015.eko I Hiruhilabetea	23
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	16,1	2015.eko I Hiruhilabetea	17,5
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,9	2015.eko I Hiruhilabetea	10,6
SINATURIKO KONTRATUAK	436.179	2015.eko Maiatza	243.626
KONTRATU MUGAGABEAK	22.547	2015.eko Maiatza	11.589
ESKAINNTZA ETA ESKARIA			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (% ALD.)	5,4	2015.eko Apirila	2,7
BPGd EAEn (% ALD.)	2,2	2015.eko I Hiruhilabetea	0,5
BPGd NAFARROAN (% ALD.)	2,3	2015.eko I Hiruhilabetea	0,6
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	2,7	2015.eko I Hiruhilabetea	0,7
BPGd 28-EUROPAKO BATASUNEAN (% ALD.)	1,5	2015.eko I Hiruhilabetea	1,4
PREZIOAK			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	0,1	2015.eko Ekaina	0,1
URTEARTEKO KPIa 28-EUROPAKO BATASUNEAN (% ALD.)	0,3	2015.eko Maiatza	0,6
<p>* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.</p> <p>Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística</p> <p>2015/06/05ean eguneraturiko informazioarekin</p>			
128. zenbakia Egoeraren azterketa 2015.ko uztaila			



Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Enpleguaren egoera 4
2. Langabezia, behin-behinekotasuna eta Europako datuak 5
3. Langabezia, eta langabeziaren estaldura 7
4. Kontratazioa 9
5. Gizarte Segurantzarako afiliazioa 10
6. Barne Produktu Gordinaren bilakaera 11

PUNTAKO GAIA

- Etekinak eta soldatak 12

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

EGOERAREN A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren Azterketa honetan enpleguan jarri dugu arreta, eta zertan den eta 2015eko maiatzaren 31ra bitarte nola bilakatu den jorratu dugu. Denbora daramagu susperraldi ekonomikoa hasi dela entzuten eta, horren ondorioz, enplegua sortzen ari dela; herritarrek, ordea, ez dute gauza bera sumatzen, eta egiazko datuek ez dute diagnosi bera ematen.

** Txosten hau 2015ko ekainaren 5ean eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

Manu Robles-Arangiz Institutua
www.mrafundazioa.org
Twitter: @mrafundazioa

1. Enpleguaren egoera

BAlk 2015eko lehen hiruhilekoaz emandako datuek diote biztanleria aktiboa (hau da, lana dutenak edo era aktiboan lan bila ari direnak) 1.347.600 izan direla HEHn (1.041.500 EAEn, eta 306.100, Nafarroan). Biztanleria aktiboaren bilakaera egonkor samar mantendu da azken urtean (3.000 lagunetan hazi da), baina joera beheranzkoa da (azken hiruhilekoan 11.700 lagunetan jaitsi da, eta 2011ko lehen hiruhilekotik, berriz, 64.100 lagunetan).

25 urtetik beherako biztanleria aktiboa 63.500 lagunekoa izan da, eta haren bilakaera beherantz doa: azken urtean, 65.000tik 63.500era jaitsi da, eta azken hiruhilekoan, 2.000 lagunetan; ikuspegia hartuta, 2011ko lehen hiruhilekotik, 25 urtetik beherako biztanleria aktiboa laurden bat jaitsi da (85.300etik 63.500era; %25,6).

Biztanleria landuna, hau da, enplegua duena, 1.128.500 lagunekoa izan da Hego Euskal Herrian (870.300 EAEn, eta 258.200, Nafarroan). Datu hori txarrenetakoa izan da (bigarrena) 2002tik hona lehen hiruhileko baterako, hau da, Biztanleria Aktiboaren Inkesta egiten hasi zenetik hona; eta 2014ko lehen hiruhileko txar-txarrak bakarrik izan zuen datu txarragoa, biztanleria landuna 1.111.900 lagunekoa izan baitzen; horrela, HEHko biztanleria landuna 16.600 lagunetan hazi da azken urtean (18.700 EAEn, baina Nafarroan 2.100 jaitsi da). Hala ere, 2011ko hasieratik, 109.700 lagun gutxiago ari dira; % 8,9 gutxiago, hain zuzen.

Azken urtebetean biztanleria landuna 16.600 lagunetan handitu bada ere, esan behar da lanaldi partzialeko enplegua dutenen kopurua nabarmen handitu izanaren ondorioa dela, 33.800 lagunetan handitu baitira. Lanaldi osoko enpleguak, aldiz, 17.000tik gora lagunetan jaitsi dira. Horrela, lanaldi osoko enpleguak enplegu guztien % 83,4 izan ziren 2014an, eta 2015ean, berriz, % 80,7. Izan ere, 2011tik hona, lau puntutan jaitsi da, eta horrek ederki erakusten du lanaldi osoko enpleguen beheranzko joera, lanaldi partzialen aldean.

Biztanle landunaren bilakaera sexuaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu emakume landunak 10.000 gehiago direla (530.200 izan arte); aldiz, gizonezkoen artean, landunak 6.000

gehiago dira (598.200, guztira). Bilakaera hori zor zaio lanaldi partzialeko enplegu kopurua handitu izanari, arestian azaldu dugun bezala, eta horrek nagusiki emakumeei eragiten die (azken urtean, ia 25.000 emakume gehiago ari dira lanaldi partzilean); dena den, horrelako enplegua gizonezkoen artean ere hazi da (ia 9.000 gehiago). Horren ondorioz, enplegu partzialen %81,7 emakumeen eskuetan daude (gizonen eskuetan, berriz, %18,3).

Soldatapekoak 943.400 izan dira 2015eko lehen hiruhilekoan; 736.700 EAEn, eta 206.700, Nafarroan. Azken hiruhilekoan 4.000 lagun gutxiago izan dira.

Azken urteko bilakaerak erakusten du soldatapeko enplegua dutenak 20.100etan hazi direla. Baina igoera hori EAeri bakarrik zor zaio (zehazki, 27.500 lagunetan handitu da), Nafarroan beherantz segitzen baitu soldatapekoen kopuruak (zehazki, 7.400 lagun gutxiago). Azken urteotako bilakaerari erreparatuz gero, 2011ko lehen hiruhilekotik hona, soldatapekoen 103.000 enplegu galdu dira; 74.900 EAEn, eta 28.100, Nafarroan.

Soldatapeko enpleguaren bilakaera aztertzen badugu, biztanleria landunarekin gertatzen den bezala, erakusten du igoera handiena emakumezkoen artean gertatu dela, 2014ko lehen hiruhilekoan 453.800 soldatapeko baitziren, eta handik urtebetetera, berriz, 465.400 (11.600 gehiago). Gizonezkoen artean, berriz, soldatapeko enplegua hein txikiagoan hazi da epealdi horretan; 8.500 gehiago dira (469.500etik 478.000ra). Hala ere, eta aurreko hiruhilekoaren aldean (kontrakoa gertatu zen lehen aldia izan baitzen), berriz ere gehiago dira gizonezko soldatapekoak emakumezko soldatapekoak baino HEHn.

Soldatapekoen enplegua sektorez sektore HEHn aztertzen badugu, azken urtean nekazaritzan soldatapeko mila bat lanpostu galdu direla ikusiko dugu (nekazaritzan soldatapeko guztien % 0,8 baizik ez da ari), hau da, % 11,5eko jaitsiera izan da. Hala ere, 2011tik hona, joera goranzkoa da, lehen sektorean soldatapeko 1.800 lanpostu berri sortu baitira.



Eraikuntzan (soldatapeko enpleguen % 4,3 ditu), 2011ko lehen hiruhilekotik hona, enpleguen % 34 suntsitu da (hau da, 20.900 lanpostu gutxiago); gainera, azken urtean, 2.000 enplegu galdu dira eraikuntzan.

Aldiz, industrian (2015eko lehen hiruhilekoan, soldatapekoen %23,6 zuen), 4.100 lanpostu berri sortu dira azken urtean, hau da, %1,9 hazi da. Hala ere, 2011tik hona, industrian soldatapeko 30.100 lanpostu galdu dira, hau da, ia %12ko jaitsiera izan da.

Zerbitzuen sektoreak biltzen du lanik gehien Hego Euskal Herrian, soldatapeko biztanleriaren %71,3 hain zuzen, eta azken urtean, 19.400 lanpostu sortu ditu, baina 15.200 enplegu suntsitu dira bakarrik azken hiruhilekoan, eta 2011z geroztik, 53.700.

Soldatapekoen bilakaera sektoreen arabera. 2011-2015, HEH

	2015-1H	2014-4H	2014-1H	2011-1H	2011-2015
<i>Lehen sektorea</i>					
Nafarroa	3.400	2.800	5.300	3.300	+100
EAE	4.300	2.800	3.400	2.600	+1.700
HEH	7.700	5.600	8.700	5.900	+1.800
<i>Eraikuntza</i>					
Nafarroa	8.700	8.700	7.700	16.800	-8.100
EAE	31.800	30.300	34.800	44.600	-12.800
HEH	40.500	39.000	42.500	61.400	-20.900
<i>Industria</i>					
Nafarroa	58.200	58.700	61.500	61.700	-3.500
EAE	164.600	156.400	157.200	191.200	-26.600
HEH	222.800	215.100	218.700	252.900	-30.100
<i>Zerbitzuak</i>					
Nafarroa	136.500	139.800	139.500	153.000	-16.500
EAE	536.100	548.000	513.700	573.300	-37.200
HEH	672.600	687.800	653.200	726.300	-53.700

Iturria: BAI

Sektoreen bilakaera ezberdin honek aldatetak ekarri ditu soldatapeko enpleguaren osaerara azken urteetan. Ondorio nagusia industria sektoreak izan duen pisu galera da, krisia hasi zenetik %26,6tik % 23,6ra pasatu baita (3,3 puntu gutxiago); zerbitzu sektorea, berriz, %64,5etik % 71,3ra pasatu da (6,8 puntu irabazi ditu).

Behin-behinekotasunari dagokionez, HEHn 207.7000 lagun ari dira aldi baterako kontratuekin, iaz baino 16.700 gehiago. Behin-

behinekotasuna bi lurraldeetan hazi da, EAEn 149.200etik 160.900era igaro baita (11.700 gehiago), eta Nafarroan 41.800etik 46.800era (5.000 gehiago).

Sexuaren arabera, behin-behinekotasuna gehiago sufritzen dute emakumeek, aldi baterako enpleguen %58,8 (116.400) emakumeena baita. Gizonezkoen artean, aldi baterako 91.700 kontratu daude (%44,2).

Beraz, hona hemen 2015eko lehen hiruhilekoko enpleguaren inguruko ondorio nagusiak:

- Enplegua dutenen kopurua (landunak) hazi egin da.
- Baina hazkundera batez ere zor zaio enplegu partzialak eta behin-behinekotasuna igo izanari.
- Enplegu prekarioa igo da prekarietaterik handiena sufritzen dutenen artean, emakumeetan eta zerbitzuen sektorean.


2. Langabezia, behin-behinekotasuna eta Europako datuak

Enplegua gora doala dioten mezuen aurrean, nazioarteko egoerarekin eginiko alderaketak egiazki zer egoera dugun erakusten du.

Langabezia tasa EHEn %16,3 da, 2015eko BAIren lehen hiruhilekoko datuen arabera. European (2015eko lehen hiruhilean) langabezia-tasetan laugarren handiena izan da, eta Kroazia (%17,1), Espainiar Estatua (%23,1) eta Grezia (%25,6) bakarrik egon dira gainetik. Horrela, HEHko langabezia tasa EB-28ko batez bestekoa baino 6,6 puntu altuagoa da (Europakoa %9,7 baita).

EAEko langabezia tasa %16,4 izan da, hau da, 28-EBko bataz bestekoa baino 6,7 puntu gehiago, eta Nafarroako langabezia tasa (%15,6), berriz, 28-EBko batez besteko tasa baino 5,9 gehiago.

Langabezia tasa 28-EB, 2015eko I. Hiruhilekoa



Iturria: Eurostat, BAI

Langabezia tasaren bilakaerak erakusten du azken urtebetean langabezia %17,3tik %16,3ra jaitsi dela HEHn, hau da: %1 jaitsi da. Langabezia tasan izaniko jaitsiera absolutua handixeagoa izan da HEHn Europan baino, non 2013ko laugarren hiruhilekoko %10,5tik 2014ko hiruhileko bereko %9,7ra jaitsi baita (beraz %0,8 jaitsi da).

Lurraldean arabera, EAeri dagokionez, langabezia tasa %17,4 zen 2014ko lehen hiruhilekoan, eta %16,4, berriz 2015eko lehen hiruhilekoan. Nafarroan, berriz, jaitsiera handiagoa izan da: %17,1etik %15,6ra.

Gazteen langabezia tasa (25 urtetik behekoak) %39,4 da HEHn. Horrek esan nahi du 18,5 puntu altuagoa dela 28-EBko batez bestekoa baino, %20,9 baita. Horri buruzko azken datua %39,3 da EAEn, eta %39,4 Nafarroan.

Gazteen langabezia tasak HEHn izaniko bila-kaerari doakionez, azpimarratu behar da nabarmen jaitsi dela azken urtean (%50,15etik %39,4ra). Hori nagusiki zor zaio 6.100 lanpostu sortu izanari 25 urtetik behekoentzat, gazte langabeen kopurua 2014ko lehen hiruhilekoko 32.600etik 2015eko lehen hiruhilekoko 25.000ra jaitsi baita (era berean, horretan eragina izan du biztanleria aktibo gaztea 1.500 lagunetan jaitsi izanak); EAEn, 23.200etik 17.900era jaitsi dira. Nafarroan, berriz, 9.400etik 7.100era.

Hego Euskal Herrian langabezia tasarik altuenetakoa izateaz gain, Europako prekarietate altuenetakoa ere bada. Horren adibidea da behin-behinekotasun tasa.

Behin-behinekotasun tasa %20 izan da 2015eko hasieran. Horrek esan nahi du %0,7 jeitsi dela azken urtean. EAEn, behin-behinekotasun tasa %21,8 da (0,8 puntu igo da), eta Nafarroan 3,1etik gora puntu igo da 2014ko hasieratik hona, eta gaur egun, %22,6 da.


Sexuaren arabera bilakaera ezberdina da: emakumezkoen artean, behin-behinekotasuna %29,4 da, azken urtebetean %1,1 igo ondoren; gizonezkoen artean, berriz %19,2 da, urtebetean 1,5 puntu igo ondoren.

Europan, behin-behinekotasun tasa %14,1 da batez beste, hau da, HEHn baino 5,9 puntu gutxiago. Bilakaerak, gainera, erakusten du tasa igo den arren, gutxiago igo dela (0,3 azken urtean) gure herrialdean baino.

Sexuaren arabera, behin-behinekotasun tasa batez beste %14,4 da Europako emakumezkoen artean; hau da, HEHn baino 10,5 puntu gutxiago. Gizonezkoen artean, Europako behin-behinekotasuna apalagoa ere bada emakumezkoen artean baino; %13,8 (0,6 puntu gutxiago), eta 5,4 puntu gutxiago HEHn baino.



Behin-behinekotasun tasa 28-EB, 2014ko IV. Hiruhilekoa



Iturria: Eurostat, BAI

Horrela, langabeziari eta enpleguaren prekarietateari dagokienez (behin-behinekotasunaren ikuspegitik), ikusten da Hego Euskal Herrian buru garaia 28-EBn.

Hortaz, egoera larria dela esan dezakegu:

- Langabezia tasa 28-EBko batez bestekoa (%16,3) baino 6,6 altuagoa da.
- Behin-behinekotasuna ere askoz ere handiagoa da HEHn Europan baino; emakumezkoen artean, batez ere.

3. Langabezia, eta langabeziaren estaldura

HEHko Enplegu Zerbitzu Publikoetan 206.183 langabe erregistraturik daude maiatzean, hau da, joan den abenduan baino 7.374 gutxiago eta duela urtebete baino 15.007 gutxiago. Lurraldean arabera, EAEn 167.441 langabe daude, eta 46.370 Nafarroan. Martxoan, 219.832 langabe zeuden Hego Euskal Herrian. Hurrengo grafikoko 2015eko datua martxoari dagokio, Biztanleria Aktiboaren Inkestak ekarritako hiruhilekoko datuarekin alderatu ahal izateko.


Sexuaren arabera, langabeen %53 emakumeak dira (110.014), eta %47, gizonak (96.169). Azken urtebeteko bilakaerak erakutsi du aldea handitzen ari dela, 2014ko apirilean emakumeek langabe guztien %51,5 jo baitzuten, eta gizonak, %48,5.

Langabeziaren inguruko daturik kezka-garrituetako bat iraupen luzeko langabezia da. HEHko 134.000 lagunek urtebetetik gora dara-

mate langabezian (10.000 gutxiago dira duela urtebete baino, eta 5.000 gutxiago aurreko hiruhilekoan baino). Horrek esan nahi du langabe guztien %61 iraupen luzekoak direla

Duela urtebete, langabeen %61,9 zegoen iraupen luzeko langabezian, ia puntu bat gehiago orain baino, baina 2010eko hasieratik (%34,3 zenean), ia-ia bikoiztu egin da horrelako egoeran dagoen jende kopurua. Sexuaren arabera, iraupen luzeko langabeziak gizonak ukitzen ditu hein handiagoan, egoera horretan daudenen %54,2 baitira (72.700), eta emakumeak, berriz, 61.300.

Langabezia erregistratua eta iraupen luzeko langabezia, HEH, 2008-2015



Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa, BAI

Iraupen luzeko langabezia hazi izanari batu behar zaio lanik gabe daudenen estaldurarik eza eta gizarte-babesik eza.

2015eko apirilean, langabezian izena emanda zeudenen %58,7k (125.566 lagun) ez zuen jasotzen inolako langabezia prestaziorik, ez sorospenik (martxoan, 133.206 pertsonak ez zuten inolako prestaziorik jaso HEHn).


%22k soilik kobratu zuen kotizaziopeko prestazioa (urtarrilean, aldiz, %25,1ek, eta duela urtebete, %27,2k). Prestazio horren zenbatekoa eta iraupena, hain zuzen, egindako kotizazioen arabera da. Horrela, EAEn batez besteko zenbatekoa 889,3 euro izan da EAEn, eta 901 eurokoa Nafarroan.

Gainerako %19,1ek langabezia sorospena edota Gizarteratzeko Errenta Aktiboa jaso zuen (426 euro). Nabarmendu behar da Enplegua Aktibatze Programak 269 laguni baizik ez diela lagundu Hego Euskal Herri osoan, 2015eko apirilera arte; hau da, langabeen %0,1i.

Bilakaerak erakusten du gero eta jende gehiago dagoela babesik gabe eta inolako gizarte estaldurarik gabe. Azken urtebetean, horrelako atakan dauden kopuruak 5,8 puntu egin du gora, hau da, 121.107tik 125.566ra; 4.459 gehiago. 2014ko martxotik 2015eko martxora, inolako prestaziorik jasotzen ez dutenen kopurua 9.098 lagunetan handitu zen.

Horrekin batera, jende gutxiagok kobratzen du kotizaziopeko prestazioa, kopuruak 3,1 puntu egin baitu behera, 62.213tik 47.137ra zehazki; hau da, 15.076 gutxiago. Gainera, behera ere egin du prestazioaren batez besteko zenbatekoak; 29,3 euro EAEn, eta 12,5 euro, Nafarroan. Langabezia sorospena kobratzen dutenak ere 0,9 puntu jaitsi dira (4.350 lagun gutxiago).

Langabezia estaldura jasotzen duten pertsonak martxoan HEH



Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Langabeziaren estalduran izaniko jaitsiera prestazioen gastuaren murrizketan islatua dago.

2015eko apirilean, prestazio, sorospen eta gizarteratzeko errenta aktiboaren gastua guztira 92,7 milioi euro izan zen HEHn (96,5 milioi hilabete lehenago); hau da, 25,2 milioi gutxiago urtebete lehenago baino. Beraz, %21,4ko murrizketa izan da 2014tik hona.

Gutziz kezka garria da zer-nolako bilakaera izan duen langabeziaren estalduran eginiko gastuak. Izan ere, azken bi urteotako apirilean eginiko gastuari erreparatzen badiogu (2013tik 2015era), 52,6 milioitan murriztu da langabezia eta sorospen prestazioetara bideratutako gastua HEHn; hau da, %36,2 gutxiago gastatu da. Murrizketa 37,8

milioikoa izan da EAEn, eta 14,9 milioikoa, Nafarroan (%34,8 EAEn, eta %40,4, Nafarroan).

2013tik, urtarriletik apirilera bitarteko datuei erreparatuz gero, ikusten da halaber langabeziaren estaldurarako gastua murriztu dela: azken urtean, ia 111 milioi eurotan jaitsi da HEHn (%21,9ko jaitsiera), eta azken bi urte honetan, jaitsiera 207 milioitik gorakoa izan da (hau da, jaitsiera %34,4koa izan da).

Langabezia-estalduran izaniko gastua HEH, urtarrila-apirila 2013-2015. Milaka euro

	2013	2014	2015	2013-2015	2014-2015
Nafarroa	153.768,38	123.711,4	96.784,27	-56.984,11	-26.927,13
EAE	449.842,42	383.406,84	299.379,67	-150.462,75	-84.027,17
HEH	603.610,8	507.118,24	396.163,94	-207.446,86	-110.954,3

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Gainera, prestazioen gastuan izaniko murrizketa ez dator bat langabezia erregistratuaren bilakaerarekin: izan ere, askoz ere gehiago murriztu da gastua langabezia jaitsi dena baino. Horren adibidea da gastu guztiaren eta langabeen arteko ratioa: 2013ko martxoan, HEHn, 235.827 lagun zeuden langabezia izena emanda, eta hil horretako gastua 149,2 milioikoa izan zen. Aldiz, 2014ko hil berean, langabeziak %2,2 egin zuen behera (230.572 langabe zeuden), eta gastu osoak, berriz, %16,7 egin zuen behera (124,2 milioi eurora arte). Gauza bera gertatu da 2015eko martxora bitarte, gastua gehiago jaitsi baita (%22,3 gutxiago) langabeziaren jaitsiera baino (%4,7 egin baitu behera). Horrek eraginda, gastu osoaren eta langabe erregistratuen arteko ratioa honela jaitsi egin da: hots, 2013ko martxoan, 632,53 euroko gastua zegoen pertsona bakoitzeko, eta 2014ko martxoan, aldiz, 538,75 euroko gastua (%14,8 gutxiago 2013tik 2014ra), eta 2015eko martxoan, 438,92 euroko gastua (%18,5 gutxiago, 2014tik 2015era).



Langabezia-estalduraren gastuaren eta langabeziaren bilakaera. HEH. Martxo. 2013-2015

	Langabezian izena emandakoak	Gastu guztia prestazioetan eta subsidioetan (mila euro)	Langabe kopuruaren eta gastu osoaren arteko ratioa (euro)
2013ko mart.	235.827	149.168,05	632,53
2014ko mart.	230.572	124.219,66	538,75
2015ko mart.	219.832	96.488,9	438,92

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Horren inguruko ondorio nagusia hau da: nahiz eta langabezian izena emandakoen kopuruak behera egin duen, langabezian daudenak gero eta okerrago daude:

- Iraupen luzeko langabeziaren jaitsiera txikiagoa da langabeziaren jaitsiera baino.
- Langabezia prestazioen estaldura murriztu da: langabezia prestazio eta sorospentarako gastuaren jaitsiera askoz ere handiagoa izan da langabeziaren jaitsiera baino.

Gainera, azken hilabeteetan langabe kopuruak jaitsi izanak ez du esan nahi nahitaez enplegua sortzen ari denik. Bestelako arrazoiek ere eragin dute jaitsiera hori, hala nola jendearen desanimuak lana bilatzeko edota, 2010etik 2014ra, HEHn migrazio-saldoa negatiboa izan dela (48.038 lagun) edo langabeen %55,3k ez duela inolako langabezia prestaziorik kobratzen.

4. Kontratazioa


a) Aldi baterako kontratazioa

Behin-behinekotasunak enplegua prekarizatzen duenez, enpleguaren kalitatearen adierazlea ere bada. Halaxe ikusi da azken urteotan gertatu den enplegu suntsiketa izugarrian; izan ere, horrek, lehendabizi, aldi baterako kontratua zutenei eragin die hein handiagoan.

Horrela, HEHn 2015ean sinatutako kontratuen %94,1 aldi baterako izan dira (%95,5 Nafarroan, eta %93,6, EAEn). Datu horiek krisiaren aurrekoekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu orain handiagoa dela aldi baterako kontratazioaren pisua, zenbaki haiek erabat altuak izanda ere.

Horrela, 2007an, aldi baterako kontratazioaren pisua %90,7 izan zen HEHn (%91,2 EAEn, eta %89, Nafarroan).

Aldi baterako kontratuen bilakaera, guztien gainean. 2007 - 2015




Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

b) Kontratu partzialak

Kontratazioaren behin-behinekotasunari gehitu zaio kontratu partzialak gero eta gehiago direla: 2015ean beheranzko joera badute ere, 2014ko abendura arteko joera izan da kontratu partzialen kopuruak gora egin izana. Horrela, kontratu-altak ikusita, 2015ean orain arte HEHn sinatutako kontratu guztien %35,7 partzialak izan dira; hau da, 1,2 puntu gutxiago 2014 osoan baino.

Kontratu bidez lanean ari den jende guztiari dagokionez, HEHn 2015eko lehen hiruhilekoko enpleguen %19,3 lanaldi partzialekoak izan dira. Horrek esan nahi du 2010etik hona kontratu partzialak %4,9 igo direla, urte hartan %14,4 izan baitziren. Lurrealdean arabera, EAEn, 2015eko lehen hiruhilekoko enpleguen %19,7 kontratu partzialak izan dira; 2010ean baino 5,3 puntu gehiago. Nafarroan, kontratuen %18 partzialak izan dira 2015ean; hau da, 2010ean baino 3,6 puntu gehiago.

Kontratazio partzialaren bilakaera 2010-2015, HEH



Iturria: SEPE

Hortaz, hona hemen ondorioa:


- Aldi baterako kontratazioa gora doa, eta kontratazio partziala inoizko handiena da oraindik ere; beraz, kontratazio berriak oraindik ere prekarioak dira.

5. Gizarte Segurantzarako afiliazioa

Gizarte Segurantzarako afiliazioaren bilakaerak ere ederki erakusten du zenbat eta zenbat enplegu suntsitu diren. HEHn, 1.152.945 lagun daude afiliatuta 2015eko maiatzean, eta %80,45 araubide orokorrean dago. 2007ko abendutik 2015eko maiatzera bitarte, Gizarte Segurantzarako afiliazioa guztira 91.709 lagunetan jaitsi da HEHn (%7,4); haietatik 49.908 araubide orokorrean zeuden afiliaturik. EAEn, Gizarte Segurantzarako afiliazioa 67.820 lagunetan jaitsi da epealdi berean, hau da, %7. Horietatik 37.362 araubide orokorrean zeuden. Nafarroan, bilakaera are txarragoa izan da. Izan ere, 2007ko abendutik, Gizarte Segurantzarako afiliazioaren %8,5 galdu da; hau da, 23.889 lagun gutxiago, eta haietatik 12.546 araubide orokorrean zeuden.

Hala ere, 2013ko maiatzetik hona izaniko bilakaerak erakusten du HEHn 34.298 lagun gehiago daudela Gizarte Segurantzarako afiliaturik; 21.791 gehiago EAEn, eta 12.507 gehiago, Nafarroan.

Gizarte segurantzarako afiliazioa, guztira, HEH (urteko batez bestekoak, 2007-2015, milaka lagunetan)



Iturria: Gizarte Segurantza

Halaber kontuan hartu behar da denbora partzialeko bi kontratu dituen pertsona bi kotizatzaile gisara kontabilizatua dagoela Gizarte Segurantzarekiko kotizazioetarako. Horrela, denbora partzialeko kontratazioan gertatzen ari den igoerari erreparatuta, iduri du enplegua handitzen ari dela, baina hori ez da horrela

Bestalde, 2014ko maiatzetik 2015eko maiatzera bitarte gizarte segurantzarako afiliazioaren bilakaerak 25.670 lagunetan igo dela erakusten du. Lurraldean arabera, EAEn 18.696 afiliatu gehiago dira, eta Nafarroan, Navarra 6.974 gehiago. Nabarmendu behar da hazkundera nagusiki araubide orokorrerako afiliazioan sortu dela; zehazki, horrelako 17.784 alta izan dira EAEn, eta 6.027, Nafarroan.

Gizarte segurantzarako afiliazioaren hazkundera HEHn. 2014ko maiatza 2015eko maiatza

	Araubide orokora	Guztira
EAE	17.784	18.696
Nafarroa	6.027	6.974
HEH	23.811	25.670

Iturria: Gizarte Segurantza



Gizarte Segurantzaren afiliatu gehiago izateari dagokionez, honako hau hartu behar da kontuan:

- Lan partziala inoiz ez bezala handitu den honetan, denbora partzialeko bi kontratu edo gehiago dituen pertsona berbera bi afiliazio edo gehiago dira Gizarte Segurantzaren. Beraz, Gizarte Segurantzarako afiliazioak ugaritzeak ez du esan nahi jende gehiago lanean ari denik. Gainera, kontuan hartu behar da afiliazio horietako asko gertatu direla enpresek bere jardueraren zati handi bat gero eta gehiago kanpora ateratzen eta azpikontratatzeko ari direlako, eta horrek, jakina, prekaritatea areagotzen du. Izan ere, jendea autonomoen araubidera eta gainerako araubide berezietara jotzen ari da enplegu bila.

6. Barne Produktu Gordinaren bilakaera

Denbora daramagu entzuten BPGa hobetzen ari dela, horrek bere kabuz arazo guztiak konponduko balitu bezala. Arazoek, ordea, bere horretan dira, eta are gehiago, asko eta asko areagotzen ari dira.

BPGaren bilakaera, berez, positiboa izaten ari da 2014az geroztik, eta goranzko joera hobetzekoa da, hurrengo taulan ageri den bezalaxe. Izan ere, EAEn, Nafarroan eta Espainiar Estatuan hiruhileko bakoitzeko BPGaren urte arteko hazkundea hobea izan da aurreko hiruhilekokoa baino; horrela, EAEn %2,2 hazi da; Nafarroan, %2,3 eta Estatuan, berriz, %2,7 2015eko lehen hiruhilekoan. Europar Batasunean, nolana ere, BPGa igo egin da; %1,5 hain zuzen ere.

BPGaren bilakaera eunekoetan

Urte arteko %	2014-2H	2014-3H	2014-4H	2015-1H
EAE	0,9	1,4	1,9	2,2
Nafarroa	1,6	1,8	2,1	2,3
Espainiar Estatua	1,2	1,6	2	2,7
28-EB	1,3	1,3	1,4	1,5

Iturria: EUSTAT, IEN, INE eta EUROSTAT

Hala ere, ekoizpenaren balio erantsi osoan izan diren hobekuntzak ez dira fruituak ematen ari lan-merkatuari dagokionez, lan prekarioak bakarrik sortzen baitira, behin-behinekotasun eta partzialtasun handikoak, eta holako lanek ez dituzte langileriaren lan- eta bizi-baldintzak hobetzen, eta era berean, ez dutelako orokorrean gizartearen erosahalmena handitzen, baizik eta pribilegiatu gutxi batzuen erosahalmena, hau da, etekinak eta kapital errentak jasotzen dituzten horiena.

Horrexegatik aztertu beharra dago soldatetara eta kapitalaren etekinetara bideratzen den BPGaren zatiaren bilakaera. Horregatik landu dugu agiri honetako hurrengo puntua, baina esan behar da ez daudela eguneratuak 2013tik aurrera organismo eta erakunde ofizialek arlo horri buruz argitara emandako datuak.



Puntako gaia: Etekinak eta soldatak

1


Etekinak eta soldatak

Diru-sarrera guztien zatirik handiena gero eta gehiago bideratzen da kapital errentak asetzera; lan errentetara, ordea, gero eta diru-sarrera gutxiago bideratzen direlarik. Horrela, 2013an (argitaraturik dauden azken datuak baitira aztertu ditugun lurraldeetarako), Espainiar Estatuaren BPGaren %47,7 lan errentetara bideratu zen, eta %52,3, berriz, kapital errentetara. Gauza bera gertatzen da gure herrialdean. Izan ere, EAEn, BPGaren %49 lan errentetara bideratzen da (%51a kapital errentetara), eta Nafarroan, %47,7 (%52,3 kapital errentetara). HEHri dagokionez, lan errentetara %48,7 bideratzen da (eta %51,3, kapital errentetara).

Horrek esan nahi du lan errentetara bideratzen dena ia minimo historikoen parean dagoela; eta kapital errentetara bideratutakoak, ordea, azken 14 urte honetako goia jo duela. Horrek guztiak agerian jartzen du langilariaren erosahaltenaren eta bizi-kalitatearen galera, eta aberastasuna klase kapitalistaren eskuetan metatzen ari dela.

2013ko lan errenten datua inoizko txikiena izateaz gain, 2009az geroztiko joera nabarmen da beheranzkoa Nafarroan eta EAEn (2009an, HEHn goia jo zuenean; BPGaren %51,4 bideratu baitzen lan errentetara). Estatuan, beheranzko joera 2010etik heldu da.

Lan errentetara bideratu den BPGaren zatia, ehunekoetan



Iturria: INE

Etekin kapitalistak nabarmen handitzeaz gain, izugarri ere handitu dira administrazio kontseiluetako ordainsariak eta IBEX-35eko etekinak.

2013ko datuak dira horren erakusgarri. Urte hartan, izan ere, IBEXeko enpresek 19.005 milioi euro irabazi zituzten, eta 344 milioi euro goi zuzendarientzako ordainsarietara bideratu ziren (hau da, 786.000 euro zuzendari bakoitzeko, 2012an baino %1,3 gehiago). Bestalde, administrazio kontseiluetako kide bakoitzak 490.000 euro kobratu zituen, eta horien artean presidenteeak kobratzen dute gehien; hots, 3,1 milioi euro, batez beste.

Nabarmendu behar da IBEXeko administrazio kontseiluak batez beste 11 aldiz bildu zirela 2013 guztian, batezbestean 45.370 euro kobratuz bilera bakoitzeko. 2013ko kontseilari guztietatik, %15,6 bakarrik dira emakumeak, soilik berdintasunerantz pauso txiki bat delarik.

Horrenbestez, argi dago herritar gehienek erosahaltenaren galera, enpresaburu handien eta kapitalisten mesedetan.